

{ analisis } Mikel Zubimendi Berastegi

Bat denontzat, denok bat

A dituek diotenez, eta Nazio Batuen Erakundeko batzorde bateko zientzialariek berriki adierazi dutenez, 11 urte dauzkagu hondamendi klimatikoa ekiditeko. 11 urte! 131 hilabete!

11 urte barru apokalipsiaren ateak joko omen ditu gure zibilizazioak, eta aurrekaririk gabeko erabakiak hartu ezean, aurrekaririk gabeko neurri eta ekintzarik gabe, ziurra omen da apokalipsiaren maldetan behera amilduko garela. Nola ekidin hain denbora gutxian hain handia den zibilizazio krisia? Ba al dugu aukerarik? Horren inguruan hausnartzea izango dute xede letrok.

Aurrenik, gu guztion patuak lotuta daudela barneratu behar dugu, norbanako atomizatuaren kulturak honaino ekarri baikaitu. Aberastasunarekiko eta boterearekiko obsesioak gure habitataren eta gizakia- ren beraren suntsiketarako bidea zabaldu baitu. Eta aterabi- dea aurkituko baldin badugu, ezinbestean, gizakion patua- ren, gizakion jokaera parteka- tuen inguruko ikuspegi oso ezberdin baten jabe egin behar dugulako.

Elkartasuna da funtsezko funtsaren funtsa. Solidaritatea da giltza. Gaur egun, baina, anti- gigoaleko hitza bilakatu da “so- lidaritatea”, eta, ezkerreko ekintzaile talde batzuetan sal- bu, hizkuntza politikotik desa-

Zibilizazio krisi bete-betean, amildegiaren ertzean gaudela diote adituek. Horren aurrean, solidaritatearen antzinako ideal noblea berpiztu behar dugu, karitatea, filantropia edo enpatiatik harago. Denok gaudelako elkarri lotuta, jaiotzatik gizadiarekiko zordun.

gertu samar dago. Ez da hor kanpoan erraz antzeman eta asko erabiltzen den ideia.

Itxura eta mamia

Izan ere, itxura bera duten kontzeptu piloa erabiltzen di- ra egun, baita asmo onekoak eta laudagarriak direnak ere. Itxurak itxura, baina, ez dira elkartasunaren berdinak. Har- tu, adibidez, aliantza eta al- truismorako egiten diren deiak. Aukerakoak izatean, hor omen dute dohaina, baina, egiari zor, kutsu moralista da- rie eta fidagarria ez den joera har dezakete. Pertsona ona eta eskuzabala izateko gonbidape- nak dira, ez guztiz beharrezko- ak diren masazko ekintza adostuetarako pizgarriak.

Eta bitartean, beste batzuk, aberatsagoak diren beste ba- tzuk, “enpatia” eta “hurkoa la- gundu” bezalako hitzekin min- tzo zaizkigu. Txalogarriak diren dohain pertsonalak dira, jakina, baina hankamotz gera- tzen dira mobilizazio politiko sendo bat pizterako orduan.

Jende boteretsuak elkartasu- na baino nahiago du “karita- tea”, baita horren kide institu- zionalizatua den “filantropia” ere. Bertutearekin errimatzen duten hitzokin, boteretsuek beren “ontasuna” azal dezake- te, pobrezia eta zapalkuntza sortzen duen sistemaren parte edo arduradun direla sentitu gabe. Izan ere, filantropia emailearen eta jasotzailearen arteko tartea bere horretan uz- teko bidea ere bada.

Ohiki, dinamika atzerakoi horietan, emaile dirudunek beren eskuzabaltasunagatik txalo akritikoak jasotzen di- tuzte, filantropo aberatsak existituko ez liratekeen gizarte justuago baten aldeko eztabai- da oztopatuz.

Eduki baino, egin

Elkarri lotuta egoteak ez du esan nahi elkar bereizterik ez dugunik, elkartasunak ez du esan nahi denok igual-igualak garenik. Izan ere, solidaritate- ak identitatearekin badu lotu- ra bat, baina ezberdina da.

Elkartasunak bi forma har ditzakeela esan izan da. Bata, mundutarra, xumea, eta, bes- tea, sublimea. Aurrenekoak berdinetik berdiner lotzen du, berdintasuna baieztatzen du. Eta, kasu eta testuinguru zehatzen arabera, ahaldundu edo banatu egin dezake. Biga- rrenak, aldiz, kanpora begira- tzen du, zabalagoa den hori- zonte batera. Ez du bakarrik ezberdina den bestea aitor- tzen, baizik eta besteekin bat egiten du, ezberdintasunak ezabatzeke baina ezberdinta- sunetik gain besteengana iri- tsiz. Forma horretako elkartasunak identitatearen mugak urratzen ditu, berdinak ez ga- ren arren, gu eta besteak ko- nektatzen gaitu.

Elkartasuna, solidaritatea, metodo bat izan daiteke ezber- dinen arteko harreman politi- ko eta sozialak sortu eta sen-

dotzeko. Elkartasuna ez da estimu edo adiskidetasun sentimendu bat, batasun edo konexio zentzu difuso bat, ezta talde egonkor batean lehendik dagoen lotura ere. Ez. Identitatea ez bezala, elkartasuna ez da norberak duen zerbait, egiten den, egiten dugun zerbait da, helburu partekatu baten aldeko ekin-tza sorta. Sentitzen den zerbait den heinean, ezin da besterik gabe eman, sortu eta landu egin behar da. Egin egin behar da, ez aurkitu.

Elkartasunak herria egiten du, komunitatea, bertan sus-traituta dago, eta, beraz, aldi berean bidea eta helburua da. Elkartasuna praktika bat da, jendeari, guri, putzu honetan denok batera gaudela barneratzen laguntzen diguna. Elkartasuna, karitatea eta filantropia ez bezala, ez da aldebakarrekoa. Gure bizitzak elkarri lotuta daudela jakitetik sortzen den elkarrekotasun forma baita.

Jaiotzatik zordun

Ikuspuntu horrek inplikazio sakonak ditu, ez bakarrik al-daketarako elkartasuna in-dartu behar duten mugimendu sozialentzat, baita gizarte bat nola ulertzen eta antolatzen dugun galderari erantzuteko garaian ere. Eta oso bereziki denbora ero eta dislokatuotan: hainbeste krisi eta hain mehatxagarriak

Elkarri eskuak eman eta elkartasunaren sokatik tira, kolektiboa izango den autoliberazioraino.
Getty Images



ditugun honetan, elkartasuna eguneroko ekinaren eta ekintza antolatuen molde ezinbestekoa da.

Pertsona mundu honetara etortzen den unetik, bere jaiotzatik, gizadiarekiko zordun da. Sortze beretik gaude iraganeko eta etorkizuneko harreman sareetan loturik. Solidaritateak badu zor sozial bat ordaintzearen ideia bere baitan, elkarrekiko interdependentziak, herritar guztien artean ia kontratuzkoak diren betebeharrak dakartza, irakaskuntza publikoaren, gizarte segurantzaren, ongizatearen, lanaren forma hartzen dutenak.

Zoritzarrez, egun zerbitzu sozialak elkartasun erradikal baten eredutik baino karita-

tetik kudeatzen dira, benefizientzia liberal baten bitartez. Elkartasunaren ulermen eta praktika kolektibo koherente baten faltan, aberatsek beti galdetuko dute ea zergatik “eman” behar dieten besteei merezi ez dutena; hala, beren parte justua ordaintzeari uko egingo diote. Eta hari beretik tiraka, gobernua zergen bitartez jabego pribatuak lapurtzen dituen munstro bat dela pentsatuko dute, ama itogarri bat, zer egin behar dugun etengabe esaten digun umezaina.

Baina ez daukagu denbora asko. Elkartasuna, solidaritatea, lotura eta koalizioak eraikitzea, ezinbestekoa izango da ekologikoki iraunkorra eta ekonomikoki

justuagoa izango den mundu baten aldeko borrokan.

Nekea eta saria

Elkartasunak, baina, ez du borroka bakarrik sorrarazi behar, zeren alde borrokatzen ari garen gaineko ulermenaren ere sortu behar du. Elkartasuna oinarri izango duen mundu baten alde, solidaritatea oinarri izango duen estatu baten alde borrokatzen gara, ez bakarrik onuradunei baliabideak banatuko dizkiena, baita baliabideok nola ekoitzi, banatu eta kudeatu era demokratikoagoan erabakiko duena. Elkartasun mundu batek biak eskatzen dituelako, neke konpartitua eta sari konpartitua.

Eta elkarri eskuak emanda, elkartasunaren sokatik tiraka eta bultzaka, alimaleko desfioari egin beharko diogu aurre: hondamendi klimatikoak gelditzeko ez dugu behar goitik, agintari iluminatu batzuegatik etorritako karitatearik, beste zerbait beharko dugu, kolektiboa izango den autoliberazio baten aldeko kanpaina sendo bat.

Antzinako “zordunak” bezala, mundura “gizateriarekiko zordun” jaio garenetik, batzuk besteak beste erreskatatu behar ditugu. Ez da beste aukerarik. Solidaritatea ala solidaritatea. Edo beste hitz batzuekin esanda: elkartasuna beti, eta beteki, edo gure denbora bukatu egingo da.